

Goi

Goierritarra aldizkaria

388. zenbakia 2010eko urriak 8



**JOSE
MANUEL
ETXABE**



KOLORE ASKOTAKO GOIERRI

redcove



XERBERA
Taberna & Jatetxea



Barrendainen, betiko tokian Nafarroa etorbidea, 21 Beasain T 943 888 829



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:
 I. Fdez Or naburu Dra.
 (Medikuntza estetikoan masterra)
 A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
 ZENTRO MEDIKUA
 www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

● GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU
 ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

UDAZKENEAN ORGANIKOAREN BILKETAREKIN JARRAITZEN DUGU.

ESKERRIKASKO ZUEN PARTE HARTZEAGATIK ITSASONDO, ARAMA, OLABERRIA, LAZKAO ETA IDAIZABALEKO HERRITARROI.



Etezez-etxe banatuko dugu bilketarako behar duzun guztia.

URRIAN: SEGURA ETA ATAUNEN.

AZAROAN: BEASAINEN.

Herri guzti hauetan kanpaina berezia. ANIMA ZAITEZ!!

Argibide gehiago: **www.sasieta.net**



Gipuzkoako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Gipuzkoa



Ion Muñoa

Ez dira egun asko Alemaniara joan-etorritxo interesgarri bat egin dugula hainbat zeraindarrrek. Hamaika kontu, pasadizo eta abentura konta nitzake bidaiari buruz, baina akaso hobe izango da beste baterako uztea. Oraingo honetan, gure lagunetakoa batek alemaniarrek ikustean barren-barrenetik esaten zuen esaldi baten jira-bueltan erreparatu nahi dut: "paita jotzen zuten". Halaxe

esaten zuen gizonak alemaniarrek ikustean (egunean hainbatetan). Esaldiak atentzioa eman eta galdetu nion zergatik esaten zuen hori. Eta hark, barre-xirri batekin erantzun zidan adarra majo joz: "zuten!"

Erantzunak ez ninduenetz asebate, buruari buelta batzuk eman eta ditxosozko esaldiaren zentzuaren bila hasi nintzen. Lehenik pentsatu nuen hizkuntzaren fonetikarekin izango zuela zerikusia; izan ere, alemaniarrek hizketan entzun ondoren "paita jotzen zuten" esan, eta badi-rudi hizkuntza berekoa dela. Bigarren aukera bat ere okurritu zitzaidan. Alemaniarrek zerbeza asko edaten dute, eta ondorioz, haiek ere lerro-zuzenen bortxatzaile bihurtzen

Beste batzuk paretak joz gabiltza eta gehienetan gainera, uste dugu, besteek jarritakoak direla.

dira; horrela bada, ez da harritzeko paretaren bat ere jotzea. Izan zitekeen. Eta azkenik, Berlingo kaleetan barre-na historia gordin bezain gertukoa duen harresiari begiratu eta hari buruz ariko zela pentsatu nuen: bat egin nahi, eta "paita jotzen zuten". Auskalo...

Esanahiak esanahi, zer pentsa eman dit paretaren kontrako golpeak. Guk barre algaraka esandakoaren atzean herri baten izaeraren hainbat elementu badira. Baina Alemaniak 20 urte bete berri ditu bateratuta, horma handirik jo gabe. Bitartean, beste batzuk paretak joz gabiltza eta gehienetan gainera, uste dugu, besteek jarritakoak direla. Baina Berlingo horma ezagun hura bezala, gure gehienak ere guk geuk eraikitakoak direlakoan nago. Eta gu alemaniarrei "paita jotzen zuten!" eginez...



Eneritz Gorrotxategi

Ez dut uste nazioartekak une honetan barre asko egingo duenik gure kontura. Egia da bai, gure bidean horma asko jarri zaizkigula eta horien kontra jotzean, kolpe latzak hartu ditugula. Baina egungo egoera, berezia da. Nazioartetik bertatik adierazi dute horma horiek deusezte bidean, eman beharreko pausuk emateko prest daudela, lanerako borondatea azaldu dute alde askok. Ez ordea, hormak eraikitzen profesionalak direla erakutsi duten eta egoera honi bizkarra eman dioten etsai nagusiek.

Horma horiek gainditzeko indarra ematen du giro hori dagoela ikusteak. Borondatea eta konponbiderako grina badu nazioartekak eta horri eutsi egin behar diogu, beraien bultzadarekin bat egin behar dugu.

Indarrak biltzeko eta paretak horiek igotzeko prest gaudela erakusteko, hitzordu garrantzitsu bat izango dugu las-

Txikitasunean indarrak bildu

behar ditugu horma handiena ere

txiki gera dadin.

ter, Ordizian, hilaren 16an. Eskoziarekin ditugun parekotasunei helduta, aurrera bideari ekin behar diogu, euren ibilbidea errepikatzea helburu hartuta; eurek laster egin asmo duten erreferenduma, gurean egunen batean ere egin dadin. Biak izenez Goierri ditugulako, bi herriek hizkuntza gutxituak dituztelako, bi nazio garelako eta erabakitze eskubidea geurea izan behar delako: bi herri, bi helburu, bi amets, bi nahi, une jakin bat eta aldarrikapen bakarra: hitza, herriak izan dezala.

Txikitasunean indarrak bildu behar ditugu horma handiena ere txiki gera dadin. Jakin badakigu nora iritsi nahi dugun. Helburua garbi izanda eta bidean hartutako golpeek utzi dizkiguten ondorioak haintzat hartuta lortu behar dugu hainbeste espero duguna; eskubidez dagokiguna!

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama, Itsasondo eta Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia



Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L.
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 757
Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Hitzak gauzatzen hasteko garaia da.
Asmo potoloek errealitateari egin behar diote
bidea eta hori hala izatea gure esku dago.



Igor Eguren

Bada garaia

N ekez uler daiteke ezein prozesu demokratiko norbanakoari errespeturik zor ez bazaio. Askotan entzun dudana esaldia da eta bat nator harekin baldin eta esaldiari bere osotasunean erreparatzen bazaio. Norbanakoaren izatea ez da existitze hutsa; izate hori bere askatasunean datza. Bizitzeko askatasunean, pentsatzeko askatasunean, erabakitze askatasunean.

Euskaldunon joera tinkoa da eta izan da beti; tinkoa eta lausoa. Ke arteko egunak urte-liburuetan baino ez dira ageri dagoeneko. Gizartea beraren garapena besterik ez dela iritzi diot, izan ere, gure herri eta auzoetako kaleak suak piztu zitueneko garaiak ez baitira hain aspaldikoak. Baina gatazkaren arazoiek gertuan dira ene iduriz. Gatazkaren amaierara heldu garela esatea, baina, errealitatea desitxuratzea besterik ez da.

Ke arteak itsutu egin zuen gizartea une batean, baina garai berriagoetara heltzeak, ke hura desagertzeak, alegia, agerian utzi du errealitatea. Gatazkaren gordintasunean erraza da arrazoi korapiloa jartzea, baina barealdiak azaleratu egiten du oinarrian dagoena. Edozein egoera berri bilatzeko ezinbestekoa da hurkoa errespetatzea, haren bizitzarekiko errespetua izatea baina aitortu dugu hori ez dela hitz soila; hurkoaren bizitza errespetatzea da existitzen duela aitortzea, bai, baina libre bizitzeko eskubidea duela aitortzea ere hura bezain ezinbestekoa da.

Euskal Herrian zerbait berria pizten ari da. Txinparta txikiak baso idorra sutan jar lezake. Ikustea besterik ez dago azken hilotan izan diren deialdi desberdinek sortu duten uholdea. Ke arteak lausotu zituen gertaerak bistaratu egin dira ordea; inoiz baino agerikoago. Debekuaren makila herri oso baten izaera astintzen ari da, ataka berria eteteko. Izan ere, bakarrik norbanakoari zor zaion errespetua aldarrikatzen dutenek ukazioaren eremua dute bizileku; eta inoiz haien arbasoek lapurtutako lurrean aplikatzen dute, berriz ere, haien dotrina. Norbanakoari errespetua zor zaiola diote; norbanako horrek duen erabakitze eskubidea ukatu, zapaldu, eta hiltzen duten bitartean.

Denbora gehiegi pasa dugu gure zilberrari begira. Bada garaia itxituretatik irten eta langa pasatzeko. Norbanakoak izan behar du horretarako aukera, zor zaiolako, bizitze hutsa bezain inportantea delako norbera zer den eta zer izan nahi duen erabakitzea. Aukera hori gabe, aurreko guztia hitzak besterik ez dira.

Ukazioaren garai gordinenetan, ke arteak lausoa uxatu duenean, aukera bat sortu da amankomunean duguna konpartitzeko. Horretan dabil gizartea, gure gizartea, aukerak esku-burdirnez lotu zizkioten herria.

Inork ez du inoiz esan ibilbidea erraza izango denik, baina guztiok dugu zerbait emateko. Urrutiko herrietako hotsak heldu zaizkigu maiz eta besteen ispluan islatu nahi izan dugu askotan, geurea badugula erreparatu gabe.

Nazioen Mundua Idiazabalen sortu eta Goierri hazi den kimua da. Itxituretatik irten eta ibilbide luzean bidelagun izan daitezkeen norbanakoez bete den ontzia. Garbi dugu norbanakoaren errespetuan oinarritzen dela guztia. Honen eta haren pentsaera ulertzean datza gehiena. Desberdintasun handiak izan ditzakegu baina bada oinarri bat batzen gaituena eta hori da ontzi hau gidatzen duen lema: erabakitze eskubidea dugula; norbanakoaren izatea ez dela existitze hutsa; izate hori bere askatasunean datzala; bizitzeko askatasunean, pentsatzeko askatasunean, erabakitze askatasunean.

Hitzak gauzatzen hasteko garaia da. Asmo potoloek errealitateari egin behar diote bidea eta hori hala izatea gure esku dago. Iritsi da unea! deitu diogu urriaren 16an Ordizian ospatuko dugun jaialdi erraldoiari eta etorkizuna garatzeko ale bat besterik ez du izan nahi. Gure buruari aitortu diogu garaia heldu dela, ez dugula ezer aldarrikatzeko, gauzatzeko baizik. Erabakitze eskubidea norbanakoari errotutako eskubidea da, existitzea bezain inportantea.

Autowag



☎ 943 888 254
☎ 943 888 266
Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN

Nominan jartzen du irabazten duzuna!

Maizpide euskaltegia

Zuzena ote dugu izenburuko esaldia? Bada, ez! Hamaika aldiz hitz egin dugu txoko honetan gaztelaniak gure euskararen duen eragin izugarriari buruz... eta gaurko hau ere ez da salbuespena! Cervantesen hizkuntzako "lo que" guztiak molde berean egiteko joera hartu dute hainbatek aspalditxotik, eta "gure euskerea" txukunduko badugu, ondorengoak bezalakoez ez dute lekurik izan behar:

- ✗ *Nominan jartzen du irabazten duzuna, Jokin! (desegokia)*
- ✗ *Esango dizuet gertatu zaidana! (desegokia)*
- ✗ *Esango didazu zor dizudana? (desegokia)*
- ✗ *Badakit behar duzuna, Alaitz! (desegokia)*
- ✗ *Aditu al duzue, horrela jarraituz gero, gertatuko zaizuen? (desegokia)*
- ✗ *Begira egin didazuna, Imanol! (desegokia)*
- ✗ *Badakizue gaur semeak esan didana? (desegokia)*

Aurreko esaldiek, txukun jartzekotan, nola behar dute? Bada, erreparatu beste hauei:

- ✓ *Nominan jartzen du ZENBAT irabazten duzun, Jokin! (egokia)*
- ✓ *Esango dizuet ZER gertatu zaidan! (egokia)*
- ✓ *Esango didazu ZENBAT zor dizudan? (egokia)*
- ✓ *Badakit ZER behar duzun, Alaitz! (egokia)*
- ✓ *Aditu al duzue, horrela jarraituz gero, ZER gertatuko zaizuen? (egokia)*

ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Esadazu erdarazko sasi-erlatiboekin zer egin behar duan aurrerantzean, maisu!
2. Gure etxean bazkaldu nahi duzula? Tira, Bartolo, etxera joan eta ikusiko dugu hozkailuan dagoena!
3. Zeferino gizagaixoari egin diozuna ez zenioke beste inori egingo, Zeles!
4. Joxek esan diguna ez zaigu batere gustatu!
5. Zer gertatu zaidan kontatuko banizu, ez zenidake sinetsiko!

OHARRA: bigarrena ez da zuzena, dedio! (Hozkailuan zer dagoen behar du!).

- ✓ *Begira ZER egin didazun, Imanol! (egokia)*
- ✓ *Badakizue gaur semeak ZER esan didan? (egokia)*

Lehenengo "adibide-multzoko era edo modua" zilegi izango da, ordea, ondorengo esaldietan:

- ✓ *Ai, Jokin, Jokin, irabazten duzuna xabutu egiten duzu berebala! (egokia)*
- ✓ *Gaur gertatu zaidana ez da kontatzekoa! (egokia)*
- ✓ *Zor dizudana egunen batean ordainduko abal dizut, Maittere! (egokia)*
- ✓ *Alaitz, zuk behar duzuna... "masaje erromantiko" horietako bat da! (egokia)*
- ✓ *Mutil biburri horiei gertatu zaienak ez nau batere harritu! Hain dira alprojak! (egokia)*
- ✓ *Imanol, egin didazunak ez du barkamenik! (egokia)*
- ✓ *Gaur semeak esan bazkarian esan didana (bota duena...) ez dut berehalakoan abaztuko! (egokia)*

"Paxkuli" traktoreek badakite nik zer nahi dudana: azelerazio ona eta egonkortasun ezin hobea! Aupa Paxkuli!



Antonio Urbizu nekazaria, harro baino harroago!

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

e txekin
www.txekin.net

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 5 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
- ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

xetai
diseinuzko altzari eta sukaldeak

www.xetai.net

nafarroa etorbidea 1, solairuartea - 20200 beasain



Sabina Zivec



“Mendebaldeko yoga da Pilates”

Pilates Estudioa ireki berria du Sabina Zivec argentinarrak Beasainen. Goierritarrentzat Pilates mota edo sistema ezberdinak ekarri ditu Beasaina. Prebentzioaren bitartez, Pilates metodoak, gure osasunaren ekarri ditzakeen onurak azpimarratu ditu.

Zer da Pilates?

Pilates “mendebaldeko yoga” da. Ariketak poliki-poliki egiten dira, zehaztasunez, arnasketa jakin batekin, ariketa bakoitzean helburu bat izanez eta aldi berean gorputzaren erabateko kontrola kontutan hartuz. Ezinbestekoa da beti jarrera jakin bat hartzea; gerriaren mugikortasunean jartzen da arreta berezia.

Garrantzitsua da beti postura egoki bat hartzea; gerri pelbi-koari eta eskapularraren mugikortasuna nabarmetzen da, baita

bizkarrezurrarena ere; honegatik guztiagatik, Pilatesa, “bizkarreko arazoak” eta muskulu-eskeletikoak prebenitu eta hobetzeko, tresna ezinhobea da eta horregatik gomendatzen dute medikuek, fisioterapeutek, traumatologoeak eta abarrek. Ariketa fisiko osoa da, erresistentzia, malgutasuna eta prestakuntza fisiko ona lortzen da, eta kirola praktikatzekoan sor daitezkeen lesioen aurrean indartsuagoak gara. Horregatik, kirolari afizionatuen eta profesionalen prestakuntza fisikorako erabiltzen da.

Metodo honek eskaintzen dituen onurak lortzeko, ezinbestekoa da eskolak, profesional kualifikatuek eta eskarmentudunek ematea eta taldea 10-12 laguneko izatea. Begiraleak esperientzia gutxi izango balu, taldeak 4-6 pertsonakoak izan behar lirateke gehienez.

Pilates mota ezberdinak eskaintzen dituzue.

Estudioan, metodo honetarako bereziki diseinatutako makinek lan egiten dugu. Errazenetik has gaitzke eta Pilatesean hasi behar duen edonori, Reformer makinarekin hasteko gomendatzen diogu. Errailak eta poleak dituen kamila antzeko bat da.

4 pertsonako talde txikietan, makinaz makina, zirkuitua egiten dugu. Matt-ean, koltxoneta gainean lan egiten da, elementuekin edo elementurik gabe, gorputzaren beraren pisuarekin; baloiak, mini-ballak, txurroak, bosuak, zinta elastikoak eta abar erabiltzen ditugu. Eskolaren azkeneko zatian, erlaxazio teknika gidatuak erabiltzen ditugu, ikasleak erlaxatuta, buru argiarekin, tentsio fisiko eta emozionalaren zati handi bat kenduta, aurrean dituen jardueri erantzuteko prest geratuko da.

Pilates gaztea, beharrezkoa den zerbitzua dela iruditzen zaigu, garaiz, ohitura postural eta mekaniko txarrak prebenitzeko. Izan ere, etorkizunean, molestiak, minak eta lesioak sor baititzake. Garrantzitsua da Heziketa Fisikoaren bidez aurre hartzea.

Horiez gain, Strechin g Global Activo eskolak ematen ditugu. Erlaxazio sakona eta postura egokia lortu ditzakegu, auto-luzaketekin eta konzienteki zuzendutako arnasketaren bidez.

Gimnasia hipopresiboa, gune pelbikoaren eta gerri inguruaren tonoa gehitzeko erabiltzen da, inkontinentzia urinarioa eta prolapsoa saihestu eta prebenituz, gizonen eta emakumeen prestazio sexualak hobetuz, eta gerriaren perimetroa murriztuz.

Zein motatako jendeari dago zuzendua zentro hau?

Baldintza fisiko guztietako eta adin guztietako pertsonentzako ariketak egokitze gaitasuna eta esperientzia daukagu. Estudioaren zuzendari bezala, nik zuzentzen ditudan eskoletan hori aurrera eramaten saiatzen naiz. Zuzenean parte hartzen ez dudana eskoletan, gainbegiratzea nire esku egoten da. Ikasleari egokitutako ariketak egiten ditugu, eta ez alderantziz.

Pilates praktikatzeko hiru arrazoi:

Prebentzioa, sintomak arintzea eta norberaren gorputza ezagutzeko eta zainduz, osasuna hobetzea.

Gure gorputza, bizitzan ibiltzeko dugun ibilgailua da, beraz, gure zainketa eta errespetua merezi ditu.

Damutzea baino hobe al da prebenitzea?

Dudarik gabe. Osasuna, galtzen dugunean baloratzen dugu. Mina, alarma seinalea izaten da, zerbait ondo ez doala adierazten digu. Bi galdera egin beharko genituzke: nola zaintzen dugu gorputza? Bidaltzen ari zaizkigun mezuak entzuten ari al gara?

Zer da Ardipithecus?

Etiopiar hizkuntzan, Ardi = zorua, Pithecus = sustraia. ArdiPithecusaren aztarnak aurkitu zituzten Etiopian. ArdiPithecus, lehenengo hankabiko hominidoa izan zen, giza kiaren arbaso primitiboa. Lau hanketatik bira pasatzerakoan, aurkitzen da bizkarreko arazoaren etiologia. Espezie bezala, oraindik egokitu gabe gaude.

Non egin dituzu ikasketak?

Kirol eta Hezkuntza Zientzietan lizentziatua naiz (2001), Argentinako BS As-en ikasi nuen. Aerobic, step, tonifikazioa, tae-boan (1998) formatu nintzen eta ordutik taldeko eskolak ematen ditut.

Donostian Pilates ikasi nuen (2004) Concepcion Miguel Abalde Doktoarearekin. Irakasle eta pertsona bikaina. Ordutik, Pilatesekin bakkari ari naiz.

Gimnasia Zuzentzailea eta kirol lesioak ikasketekin jarraitu nuen, Sevillan. Azkenaldian, RSF, gimnasia hipopresiboaz interesatua nago, Caufriez Doktoarearen metodoa da bera.

Argentinan Pilates asko egiten al da?

Izugarri praktikatzen da, oso maila altuko eskolak eta ikastarolak daude.

Nola iritsi zara Beasaina?

Duela 50 urte, Argentina "munduaren ale-biltegia" zenean, nire aitona-amonak Argentinara iritsi ziren bezala iritsi naiz ni Beasaina. Krisi ekonomiko eta soziala izan da arrazoiak. Bitxia da, lehen hemendik hara zihoazen, eta orain etorkinen seme-alabak eta bilobak hona gatoz.

Oso gustura nago Euskal Herrian. Jende zoragarria ezagutu dut. Langilea eta baloreak dituen. Nahiz eta ez jakin zer gertatuko den, uste dut hemen geldituko naizela, sustraiak hemen errotu ditut.

Pilates egiteko hiru arrazoi: prebentzioa, sintomak arintzea eta osasuna zaintzea, norberaren gorputza ezagutzeko eta zainduz



zuhaizki
Zurgindegia

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ


Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU

Oskarbi Oinetakoak Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak Sekundino Esnaola 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate





Sos Arrazakeriako Agustin Unzurrunzaga:

“Emigrazioa beti dago lanari lotuta; lanik ez badago, paperik ere ez”

Krisi ekonomikoa eta immigrazioa gaiari buruz hitz egingo du Sos Arrazakeriako Agustin Unzurrunzagak, urriaren 14an, Ordiziako Barrena kultur etxean, 18:30ean. 10 egun iraungo duen Goierri Kolore, Kulturen arteko IV. Topaketen lehenengo ekitaldia izango da.

Sos Arrazakeria erakundeko ordezkaria da Agustin Unzurrunzaga. Urte asko daramatza etorkinen eskubideen aldeko lanean eta gertutik ezagutzen du munduko txoko ezberdinetatik geurera bizitzera datozenen, bizipenak, arazoak eta pozak.

Krisi ekonomiko honen ondorioak, era batera edo bestera, guztiok ari gara jasaten. Krisialdi honen ondorioz, etorkinen egoera zein den jakin nahi izan dugu. Unzurrunzagak egin du errealitatearen argazkia.

Norberaren jaioterria uzteko arrazoi nagusienetarikoa bat, bizimodua hobetu nahia izaten da, ezta?

Normalean, jendea leku batetik bestera joaten denean, azpian dagoena, norberaren bizitza hobetzea da. Zeren bitartez? Lanaren bitartez. Beste leku batera joaten da, pentsatzen duela, aukera gehiago izango dituela, bere edo bere familiaren bizitza aurrera ateratzeko. Beraz, beti, lotura zuzena du ekonomiarekin eta lanarekin.


Lanaren baitan dago egoitza-baimena lortzea ere.

Emigrazioa beti dago lanari lotuta. Pertsona bat etortzen denean, eta egoitza, lan baimena eta bere familia berriz elkartzea eskatzen dituzenean, beti lana da baimena. Lana behar du; kotizazio kopuru bat behar du, bere lehenengo lan baimena lortzeko, bigarrena eta hirugarrena lortzeko eta behin-betikoa lortzeko. Lanik ez badauka, paperik ez dauka.

Lanaren menpekotasuna izugarria da. Zertan eragiten die menpekotasun horrek?

Horixe da langabeziaren ondorio bat. Lan baimen iraunkorra baduzu bost urteren ondoren, ez dizute baldintza hori eskatuko. Baina lehenengo lan baimenetik bigarrenean pasatzeko, eta bigarretatik hirugarrenean pasatzeko, beti kotizazioak eskatzen dira. Gutxienez, eskatzen da, urtero sei hilabete kotizatuta edu-

“Langile etorkinekin,
langile mota bat eraiki da.
Atzerritarren Legeak eragin oso
zuzena eduki du.
Sozialaboralki, langile oso ahula
sortu da.
Beti baimenen menpe”



“2008tik jende gutxiago dator”

Egoera zaildu den honetan, etorkinak iristen ari al dira?

Jende gutxiago dator. 2008an Erregimen Orokorra itxi zenean, jende gutxiago dator. Jendeak lana Sustraitzearen bitartez bilatzen du orain. Horrek suposatzen du, 3 urte iraun behar duzuela eta hiru urte iraun ondoren, lan kontratua egingo zaio. Baina horrek zaildu egiten du. Jendeak badaki gauzak ez direla hain erraz, lana ez dela aurkitzen epe laburrean, eta horretarako sareak behar direla.

2006 eta 2007arekin konparatuta, sarrera asko gutxitu da. Krisiaren egoeratik edo legea (Erregimen Orokorra) gogortu egin delako ote den? Oso zaila da esatea. Azken finean, ikusten ari gara, asko gutxitu dela eta jendea bueltatu egiten dela. Azken bi urte hauetan, saldo migratorioa oso txikia da. EAEn, 2009an, saldo migratorioa mila ingurukoa izan zen, oso saldo txikia.

disek **ibaiondo** **altzariak**

- barne diseinua
- dekorazioa
- sukaldeak
- proiektuak

Katea, 5 - Antzizar auzoa
BEASAIN
tel.: 943 16 40 40
faxa: 943 16 47 47
mug.: 639 631 640
www.mueblesibaiondo.com

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42001

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

Olagi Urte guztian zabalik
Eguneroko menua
Karta
Sagardotegiko meua

Sagardotegia
Jatetxea

☎ 943 88 77 26 **ALTZAGA**

“Jendea ez da bere jaioterrira itzultzen, hemen gauzak garbi ez edukiatatik, han ere ez dauz kalako batere argi.”

Etorkinak beraien herrietara itzultzen ari al dira?

Batzuk joaten ari dira, baina nik uste dut, Espainiako Gobernuak uste baino askoz ere gutxiago. Itzulera Plana jarri zuen orain dela 2 urte. Gobernuak aurreikusten zuen, urtero 100.000 pertsona joango zirela, eta %10a ere ez da joan. Lehenengo urtean 9.000 joan ziren eta aurten, lehenengo 8 hilabete hauetan, 4.000 inguru joan dira. Jendea ez doa. Joan den jendea, langabezian zegoen. Langabezia kapitalizatu egin du sistema berezi baten bitartez eta itzuli egin da. Baina itzultzerakoan, hiru urtean gutxienez, ez dela hona itzuliko, sinatu behar izan zuen, Orain jendea bulegora deitzen ari da, itzuli nahi duela esanez. Langabezia hartuz joan den jendea konturatzen da, dirua berehala gastatzen dela eta han ere ez daukala lanik. Bueltatu nahi dute.

Batzuk bueltatzen ari dira, nahiz eta jakin, hiru urtean ezingo dutela bere lan eta erresidentzia baimenak berreskuratu, eta egoera irregularrean bizi.

Jendea 9.000 euroekin joan da. Nahiz eta bere jaioterrian bizitza merkeagoa izan, ez da ezer. Hiru urtean ezin da bueltatu. Jendea ez da bere jaioterrira itzultzen, hemen gauzak garbi ez edukiatatik, bere jaioterrian ere ez dauzkalako gauzak batere argi. Ez dauka segurtasunik gauza hobeto joango direnik bere jaioterrian.

Beste kasu bat ere badago: bikoteko batek joan nahi izatea eta besteak ez nahi izatea. Gertatu izan da, hemen 5-6 urte egin ondoren, bere jaioterrira itzuli eta bere jaioterrian ez moldatzea.

Gizonezkoa hemen gelditu eta familia bere jaioterrira joan diren kasuak ere badira.

Batez ere marokarrekin gertatzen ari da. Gizona hemen gelditu eta familia Marokora joan, gastuak gutxiagotzeko.

Datu hauetatik zein ondorio atera daiteke?

Hemen dagoen immigrazioa, populatze edo “poblamiento” deitzen zaiona da. Hau da, jendea, hona bizitzera etorri da. Akaso, hasierako asmoetan, itzultzea egongo zen, baina praktikak erakusten du, gehienak hemen gelditzen dira-eta. Populatze emigrazioa dela ikusten dugu beraz. Epe luzerako bizitza bertan egiteko asmoarekin geratzen dira. Horrelako emigrazio batek, nahiz eta krisiak gogor jo, saiatzan da bertan jarraitzen. Nik uste dut, esperientziak erakusten digula, saiatzan direla bertan gelditzen, nahiz eta batzuetan egoera benetan gogorra izan.

Gobernuaren politika aldatu behar da, ikusten baita jendeak ez daukala itzultzeko asmorik, beraz, beste politika batzuk hartu beharko dira.

kitzea. Hori ez badaukazu, lan baimenik gelditzen zara eta lan baimenik gabe gelditzen bazara, egoitza baimenik gabe gelditzen zara. Etorkina beti dago lanari atxikita, bizitza osoan”.

Etorkinetan langabezia tasa, bertakoena baino handiagoa al da?

Krisi hau hasi zenetik, 2008tik, etorkinen langabezia tasa askoz ere handiagoa da bertakoena baino. Momentu honetan, Espainian, 4 miloi eta erdi langabe baldin badaude, eta langabezia tasa %19 inguruan badago, etorkinen artean, langabezia tasa, ekainean, %30ean zegoen. Horrek argi eta garbi adierazten du, nolabait, ahultasun askoz ere handiagoa daukatela merkatuaren aurrean langabeziara joateko.

Etorkinak zein lan esparrutan aritu izan dira gehienbat? Ondorioak larriagoak izan al dira?

2000-2008an, Estatuan, 5 milioi lanpostu sortu ziren eta horietatik ia erdiak, atzerritarrek betetzen zituzten. Baina gehientsuenak, %63, eraikuntzakoak ziren. Eta besteak, zerbitzuetan lan egiteko. Ikusten badugu krisiak eragin berezia izan duela eraikuntzan eta zerbitzuetan.

Horrekin batera, lan merkatuan sartu dira, bere ezaugarri guztiekin. Alegia, tenporalitatearekin eta prekarietatearekin. Nahiz eta lan merkatuan sartu, beraien kontratuak, behin-behinekoak ziren eta lan prekarietatea oso handia izan da.

Beraz, krisiak gogor jo duenean, kalera oso-oso azkar joan dira, bai lanbide zehatz horretan ari zirelako, eta bai beraien kontratuen egoera, nahiko ahula zelako. Horrek argi eta garbi uzten du datuetara joaten zarenean, etorkinen langabezia tasa ia bikoitza dela. Zehazki, %11 gehiago.

Baina nahiz eta beraien langabezia askoz ere altuagoa izan, beraien aktibitate tasa askoz ere altuagoa da. Nahiz eta, proportzionalki langabezian jende gehiago egon, lanean, proportzionalki jende gehiago ari da. Estatu maila hartuta, aktibitate tasa, %57koa da eta beraien, %70ekoa da. Zergatik? Beraien adina, 16-45 urte bitartekoa da, ia zaharrik ez dago, jubilatirik ez dago. Hortik ateratzen da aktibitate tasa altuagoa edukitzea.


Aipatu izan duzunez, etorkin langileak, ahulagoak dira.

Kontuan hartu beharreko beste elementu bat ere badago: langile etorkinekin, langile mota bat eraiki da. Atzerritarren Legeak eragin oso zuzena eduki du. Soziolaboralki, langile oso ahula sortu da. Beti baimenen menpe. Baimen horiek derrigorrez, lortu egin behar dira eta berritu egin behar dira. Berritzeko baldintza batzuk bete behar dira eta betetzen ez badira, irregulartasunean gelditzen zara. Beraz, horrek, izugarritzko dependentsia sortzen du, bertako langile batek ez daukana. Bertako langileak, merkatuak dauzkan arazoak ditu (kontratu kaskarrak, tenporalitatea, prekarietatea...) baina etorkinek hori guztia gehi dependentsia administratiboa daukate, guk ez daukaguna. Dependentsia administratibo horrek sekulako dependentsia du beraien eguneroko bizitzan.

Kontuan hartu behar da, langile etorkinak, baimen iraunkorra lortu artean, ez daukala bertako langile batek dituen eskubide berdinak. Iraunkorra lortzen duenean, esan liteke, orduan dagoela parekatua. Baina tartean ez. Eta tartean egotea suposatzen du, egoera horretan egotea, onenean bost urte; eta normalean 8-9 urte. Horretarako, hiru urte egin behar ditu egoera irregularrean, erroldatuta, eta hiru urte segidan ez baditu egiten



kutxa



erroldatuta, ez dauka ez lan baimenik eta ez egoitza baimenik. Denbora hori oso luzea da eta langile hori oso ahula da, sozialki eta laboralki.

Lanarekin lotuta dagoen beste prozesu bat, familia elkartzarena da. Nola bizi dute prozesu hori etorkinek?

Familiarik gabe bizitza oso gogorra egiten zaie. Beraiek ez daukate guk familiarekin bizitzeko daukagun eskubide hori. Eskubide hori lotuta dago, familia berriz elkartzea prozesuari eta prozesu horrek baldintza batzuk ditu. Nahikoa diru sarrera eduki behar duzu. Horrek esan nahi du, soldata eduki behar duzula, lana egin behar duzula. Lanik ez badaukazu, ezin duzu familia elkartu. Oinarritzko eskubide hori, norbera norbere familiarekin bizitzea, oso zaila da lortzea. Horrek eragina du norberaren egoera pertsonalean. Estabilitate falta eragiten du. Gauza guzti horiek, nik uste dut, krisiarekin areagotu egiten direla.

Baita ere kontuan eduki behar da, langile etorkinak, beste hanka bat, bere jaioterrian duela. Ez guztiek, baina askok seme-alabak edo gurasoak bertan izaten dituzte. Irabazten dutenaren zati bat bidali egiten dute. Krisiarekin hori pikutara joaten da. Hemen eragina duenak, beraien jaioterrian ere eragina eduki-tzen du.

“Lan inguruan baino arazo gehiago dago auzoetan”

Oso tarteka, baina hainbat herritan, tentsio egoerak bizi izan dira etorkinen eta bertakoen artean. Egoerak okerrera egitea aurreikusten al duzue?

Hemen ez dugu ikusten epe motzera. Ez dakit zer gertatuko den. Niretzat arazo gehiago dago auzoetan eta herrietan, lan inguruan baino. Lanetik kanpo, eguneroko bizitzan beste arazo batzuk sortzen dira. Krisiak horretan eragina du. Langabeziarekin, jendea gaiztotu egiten da. Jendearen egoera horretan, jendearen miseria asko ateratzen da. Orduan azaltzen da segurtasunaren arazoa, nahiz eta askotan fantasma izugarria izan. Auzoen degradazioa ikusten da. Zergatik? Fenomeno asko daude, baina auzo honetan jende arraro gehiegi dagoela... Horrek degradazioa ekartzen du. Kasu horietan arazo gehiago sortzen ari dira gure inguruan, nahiz eta mugatuak izan.

Eskuin muturreko alderdirik ez dugu. PP hor dago, eskuin muturreko gauzak esaten ditu. Baina Europako beste herrialde batzuetan bezala, ez dago alderdirik antolaturik. Ez daukagun bitartean, eskuin muturreko diskurtso hori ez da entzuten, edo entzuten da beste diskurtso batzuekin nahastuta, PPK erabiltzen duen diskurtsoa. Krisi egoerak oso aproposak dira horrelako diskurtsoak, oso egoera fantamasgorkoa sortzen dira.

Askotan, emakumea etorri da lehenengo. Lan merkatuan sartu da etxeko-lanak edo eginez, eta emakumea izan da familia elkartu duena. Horrek krisian eragina izaten du.

Psikologikoki eragina izango du familia berriz elkartzeko prozesu luze horrek ezta?

Familia berriz elkartzeak izugarritzko eragina du etorkinengan. Sufrimendu asko dago. Ez da ikusten sufrimendu hori. Bakarrrik bizitzea, familia elkartu beharra... luze jotzen du eta horrek izugarritzko eragina du. Epea moztu egin beharko litzateke, berriz elkartzeko prozesua erraztu, horrek izugarritzko ondorioak dituelako egoera pertsonalean.

Gobernu eta sindikatu ezberdinek daramaten politika egokia dela iruditzen al zaizu?

Ikusten dugu orain arte sindikatuen mezua oso komunitarioa izan dela. Alde horretatik ondo iruditzen zait. Alegia, krisiaren aurrean hartzen diren neurriak guztiontzat izan behar direla eta langilearen jatorria ez dela kontuan hartu behar aldarrikatzen dute.

Gobernuaren aldetik, hasieran, egon ziren halako mugimendu batzuk, Jose Antonio Alonsoren adierazpen batzuk hor egon ziren. Lehtasun nazionala aipatzen lehenengoa izan zen. Baina ez du jarraipenik eduki. Corbacho ez da hortik joan. Momentuz nahiko moztuta gelditu da diskurtso hori.

Nik uste dut diskurtso hori eskuinean dagoela. PPK erabili zuen azkenengo hauteskunde orokorretan. Ez dakit hurrengo hauteskundeetan erabiliko duen ala ez. Lehtasun nazionalaren diskurtso hori erabiltzen badu, benetan kaltegarria izango da eta problematikoa izango da.



Baina konparatzen baldin badugu azkeneko bi urteetan, Ingalaterran, Irlandan edo Txekian gertatu denarekin, ez dugu arazorik izan Ingalaterran zabaldu izan zuten mezua bezalako-rik: lanpostu britainiarrak britainiarrentzat. Konsigna hori alderdi laboristak berak atera zuen. Gaur egun, hemen, hori ez da gertatu. Irlandan antzekoa gertatu zen. Apalagoa baina, antzekoa.

Ordezkatze arazorik ez da orain arte. Alegia, etorkinaren ordeztu, nazionalitate espainiarraren duena sartzea, ez da gertatu. Ordezkatze prozesu hori gertatzen ez den bitartean, iruditzen zait, hori mantendu egingo dela, baldin eta sindikatuek diskurtso orokor horrekin jarraitzen badute, langiletasuna lehenengo mailan ipiniz. Langileak gara guztiok, bakoitzaren jatorria bigarren mailan geratzen da, eta bilatu behar den irtenbidea denentzat da.

Ordezkatze prozesuak daudenean, arazoak sortzen dira eta hori da Andaluzian gertatu dena, batez ere, nekazaritzako lane-kin. Azkeneko urteetan bertakoek utzita zeukaten lanbide hori, etorkinek betetzen zuten. Eraikuntzara jotzen zuten bertakoek, baina eraikuntzaren krisiarekin, itzuli egin dira. Hor bai, hor lehia bat dago. Ordezkatze prozesu horietan, tentsioa handiagoa da.

Lanik gabe daudenek, zein laguntza ekonomiko izaten dute?

Kaso batzuetan, 'Ingresoaren garantia' eskatu beste erremediorik ez dute. Kontuan hartu behar da, beraien koltxoi soziala askoz ere txikiagoa dela, gure koltxoi sozialarekin konparatuz. Bertako langabetu batek, beti dauka familia ondoan. Gurasoengana joango da bizitzera... Baina etorkinek ez daukate hori. Koltxoi sozialik ez daukatenez, gu baino askoz ere azkarrago behartuta daude zerbitzu sozialetara joatera. Beraien koltxoia zerbitzu sozialak dira. Beraien sare soziala, ezagun baten bidez lana bilatzea alegia, txikiagoa da gurekin alderatuta. Errekurtsoa administrazioa da eta babes bila administrazioa jotzen dute. Hori normala da, beraien egoera osoa normala hartuz eta kontuan hartu behar dugu guzti hori.

Goierri Kolore, urriaren 14tik 24ra

Urriak 14, osteguna:

18:30ean: Hitzaldia: Krisi ekonomikoa eta immigrazioa. Hizlaria: Agustin Unzurrunzaga (Gipuzkoako SOS Arrazakeria). Ordiziako Barrena Kultur Etxean.

Urriak 15, ostirala:

19:00etan: Bizi istorioen kontaketa. Legorretako Udaletxeko Batzar Aretoan.

Urriak 17, igandea

11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 19:00etara: Goierriko etorkinaren elkarteak ezagutzen. Mushu Pakari Ekuadorko Elkarte, Al Bir Marokoar Elkarte eta El Fagr Arabiar Elkarte. Beasaingo Gernika Pasealekuko frontoian.

Urriak 19, asteartea

22:00etan: Sakonduz saioa Goierri Telebistan, Gipuzkoako SOS Arrazakeriako Agustin Unzurrunzagari elkarrizketa.

Urriak 20, asteazkena:

18:00etan: Bizi istorioen kontaketa. Segurako Kultur etxean.

Urriak 21, osteguna:

18:00etan: Bizi istorioen kontaketa. Idiazabalgo Pilarrenean.

Urriak 22, ostirala:

17:00etatik 19:30era: Gazte Kolore - Mundialitza, Ordiziako Urdaneta ikastetxean. Goierriko 11-18 urte bitarteko gazteen arteko futbol txapelketaren kanporaketak jokatu dira bi kategorietan banatuta. Aurrez egin beharrekoa: bakoitzaren herriko Gaztelekuan izena eman edo bestela Goiekira deitu. Izena emateko epea urriaren 15ean bukatuko da eta egun berean Itsasondoko Gaztelekuan (Elizako portikoetan), taldeen arteko zozketa egingo da arratsaldeko 6etan.

Urriak 23, larunbata:

10:30etik 14:30era: Gazte Kolore - Mundialitza. Ordiziako Urdaneta Ikastetxean.

16:00etatik 18:00etara: Kaixo Lagun! Goierriar zahar eta berrien artean, kafearen bueltan, elkar ezagutzeko eta solasalditxo bat izateko aukera egongo da. Bertan, bakoitzaren ohitura, kultura eta istorioak ezagutu ez ezik, inguruko jende berria ezagutzeko aukera izango da. Bestalde, bertaratzen diren haur eta gaztetxoentzat, euskal dantzak ikasteko aukera izango dute bukaeran erakustaldi bat eginez. Gabiriako Kultur etxean.

Urriak 24, igandea:


11:00etatik 14:00etara: Gazte Kolore: Esku pilota txapelketa. Goierriko 11-18 urte bitarteko gazteen arteko binakako esku pilota txapelketa jokatu da. Aurrez egin beharrekoa: bakoitzaren herriko Gaztelekuan izena eman, edo bestela Goiekira deitu. Izena emateko epea urriaren 15ean bukatuko da. Igandean bertan zozketa egingo da. Itsasondoko pilotalekuan.

***GAZTE KOLORE – Gehiago ezagutu nazazu!**

Eskoletako ikasle etorkin batzuk beren immigratze prozesua kontatuko dute erabaki horren jabe izan ez diren ikuspuntutik. Testigantza hauek gorde egingo dira eta ondoren kaleratu.

Jose Manuel Etxabe

Real Sociedadeko nesken
taldearen entrenatzailea



Real Sociadadeko nesken taldeko entrenatzailea da Jose Manuel Etxabe, 41 urteko zaldibiarra.

Orain dela 15 bat urte hasi zen entrenatzaile Aizkorri-ko gaztetxoekin. Ondoren Goierriko hainbat talde entrenatu zituen: Segurako infantilak, Ordiziako jubenilak, Idiazabalgo jubenilak eta regionalak. Añorgara jauzi egin zuen eta bertan murgildu zen Realeko talde nagusiraino eraman duen bidean: nesken futbolean.

Noiz eta nolatan hasi zinen neskak entrenatzen?

Valladolida futboleko kongresu batera joan nintzen. Gipuzkoatik Añorgako entrenatzailea eta bioik bakarrik joan ginenez, bidaia batera egin genuen. Hantxe proposatu zidan Añorgara joatea, berak utzi egin behar zuela eta. Goierriin, futbol zelai handian, nesken futbolik ez zegoen orduan. Añorga eta Oiartzun aritzen ziren eta pixka bat urruti harrapatzen ninduen. Baina zergatik ez? Pentsatu nuen. Talde ona izan da beti Añorga, historikoa. Nesketan beti poliki ibiltzen zen. Animatu egin nintzen eta ondo atera zen.

da. Tratu pertsonalean hurbilago egon behar zara. Mutilei, bi hitz esan eta askotan nahikoa izaten da. Neskei, batzutan, azalpen gehiago eman behar zaizkie; edo beraien arazoak gehiago entzun. Partidu garaian, batek ez badu jokatzeko, agian haserre joango da etxera, neska zein mutila izanda ere. Neskak sentikorrak dira, eta beharbada, negarrez hasiko da jokatu ez delako.

Gizartean, mutilen futbolak oihartzun handiagoa du.

Neskana, orain ari da pixkanaka indarra hartzen.

Bai. Aurten ez dakit zergatik, bonbo gehixeago ematen ari zaie. Bai guri, eta bai Athletic-ekoei. Aurten harrিতා gelditu naiz. Elkarrizketa asko egiten ari zaizkit komunikabide ezberdinak. Eskerrak ondo hasi garen. Horiek denak egin eta gaizki hasiko bagina! Nabaritzen da indarra hartzen ari dela. Nik uste dut, horretarako taldeak ondo ibili beharra daukela. Iaz, nahiko txukun ibili ginen eta horrek ere bultzatzen die, bai komunikabideei eta bai zaleei. Goian talde bat ondo ez baldin badabil, zaila da afizioa sortzea.

Taldean gustura gaude. Kontseiluak ere apustu egokia egin du aurten. Soldadak pixka bat igo egin dira, hainbeste borroka egin ondoren. Neskek gauza asko erreibindikatu dituzte Reala sortu zenetik; gutxi kobratzen zuten, beti promesa onak jaso, baina gero ez ziren betetzen. Aurten badirudi gustura daudela neskak. Askok baloratzen dituzte eta gustura daude. Adibidez, aurten, arropa garbitzeko zerbitzua eskaintzen diete. Orain arte etxera eramaten zituzten entrenamenduko arropak eta aurten dena garbitzen diete. Pauso handia izan da beraientzako. Ikusten dute, hasi direla nesken taldea baloratzen.

Oso garrantzitsua da jokalariek gustura egotea, Superliga oso exigentea baita. Astean 4-5 entrenamendu, asteburuetan bidaia luzeak...

Profesionalak al dira?

Ez, hemen behintzat ez dago futboletik bizitzerik. Horretarako, Español, Levante, Rayo Vallecano... taldeetan jokatu behar da. Talde horietan, ondo ordaintzeaz gain, lana eta etxea ere bilatzen diete. Ahal duena hara joaten da.

Hemen egoera horretatik urruti gaude beraz.

“Aurrerapauso handia eman da nesken futbolean. Momentu honetan, Gipuzkoan, eta Goierriin ere bai, gaztetxo hobeak daude, proiektzio gehiagorekin, helduak baino”

Lau urte egin nituen Añorgan. Handik, Oiartzuna joan nintzen. Bi urte eginda, Realera etorri nintzen. Bigarren entrenatzailea izan nintzen iaz eta aurten, lehenengo entrenatzailea naiz.

Mutiletatik nesketara alde handia al dago entrenatzeko moduan?

Badago bai aldea. Teknikoki, kontzeptuak eta taktikak, berdintsuak dira. Bai mutiletan, bai nesketan, jokalaria batzuk azkarra hartzen dituzte kontzeptuak, eta beste batzuei gehiago kostatzen zaie. Dena den, tratuan diferentzia handia dago: neskak sentikorrak dira. Gauzak noiz eta nola esaten diren neurtu behar da. Arrazoia eduki eta haserretu behar denean, haserretu egin behar da. Baina, psikologia handia edukitzea ezinbestekoa

Bai, urruti. Talde horiek gainera fitxaketa asko egin dituzte. Guk Gipuzkoako neskak ditugu, baina, talde asko indartzen ari dira, Suitzarrak, portugaldarrak, argentinarrak, italiarrak... ekartzen dituzte, merkaturatzen asko ari da mugitzen. Horrek badu beste alde bat, guk oso aldagela sendoa daukagula. Gipuzkoako jendea da eta aldagelan sartzea erraza da, elkar hartuta daude. Horrek momentu txarretan indartuta egotera eramaten du. Zenbait taldetan, fitxaketak egiten dituzte, baina jokalaria hori, beste denboraldi batean, beste talde batera joango da. Ez daukate konpromisorik ordaintzen dien taldearekin. Gurea bezalako taldeen aldagela elkar hartuta dago eta hori nabaritzen da. Kalitate aldetik beharbada besteek gehixeago daukate, baina azkenean, futboleko dena hartu behar da kontutan.



Arg.: Real Sociedad

Aurtengo denboraldian zein helburu duzue?

Iaz fase onean sartu ginen, Superligako txapelketa jokatzeko aukera ematen duenean. Aurten ere hor sartzen saiatuko gara; hori da gure helburua: hor sartu eta ahalik eta goien iristea. Nik uste dut, aukerak badauzkagula. Aurten gainera, behera jaisteko arriskua ere badago. Orain Superligan 24 talde gaude, eta gero asmoa da, 18 talde geratzea. Beraz, aurten, ez dago lo harterik. Pilak jarriarazten ditu horrek. Guk gaur egun ezin dugu Español edo Rayo batekin lehiatu. Beraiei partiduren bat irabazi bai, baina liga erregular batean goian gelditzea oso zaila daukagu. Aurreko denboraldian lortu dugu Levanteri eta Athletic-i irabaztea, eta horrek asko indartu gaitu. Denboraldia ondo hasi dugu, iaz gu baino gorago egon zen talde bati, Prainsari, 3-0 irabaziz. Hasiera ona izan dugu. (Elkarrizketa lehen jardunaldiaren ondoren egina dago).

Iaz Superliga taldeetan banatu zen eta horrek polemika piztu zuen.

Kalterako izan zen. Araudi bat ateratu zen, Lehenengo eta Bigarren Mailako taldeek, nesken taldea ere ateratu zeza ketela, behe-behetik hasi gabe. Real adibidez, behe-behetik hasi zen. Eibarrek berriz, aukera hori aprobetxatu zuen eta berdin egin zuten Las Palmasek, Nastic-ek... Superligan jokatzeko prest ez dauden jokalariek hartu zituzten, nola edo hala apuntatu ziren hasteko, baina halaxe joan zitzairen: gol asko jaso zituzten, partiduak galdu... Jendeak asko sufritu zuen, denboraldia ezin bukatuz, gogorra egin zitzairen. Lehenengo bi urteetan, talderik ez zen jaisten, baina ikusi dutenean txapuza bat izan dela, jaitsierak jarri dituzte. Beraz, hurrengo urtean, 18 talderekin, denok denon aurka jokatuko dugu.

Zurrumurrua izan zen, Real Madriderik nesken taldea ateratu behar zuela eta horregatik eraman zuten aurrera araudia.

Azkenean, Madriderik ez zuen talderik ateratu, eta beste batzuk aprobetxatu dira araudi horretaz.

Gipuzkoan bi talde zaudete. Bi taldeentzako adina jokalaria ba al dago?

Nik uste ezetz. Eibarrek adibidez, Bizkaiko jokalariek gehiago dauka, Gipuzkoakoak baino. Athletic-era joan dira ate joko eta bigarren taldeko jokalariek utzita ekarri dituzte. Beraiek baietz esaten dute, baina, ikusten da ezin dela.

Goierriarrik ba al dago Realean?

Ez. Bi Legazpiko daude.

Herrietan gero eta nesken talde gehiago daude, maila ezberdinetan.

Goierriin, futbol-11 oso ondo dago. Aurrerapauso handia eman da azkeneko urteetan. Momentu honetan, Gipuzkoan, eta Goierriin ere bai, gaztetxo hobeak daude, gaur egun ari direnak baino proiektzio gehiagorekin. Adibidez, 14-16 urteko neskek, 20-22koak baino maila hobeagoarekin daude. Horrek esan nahi du, azkeneko urteetan azpitik lan polita egiten ari dela eta afizio handia dagoela.

Etorkizun ona beraz.

Bai. Etorkizun baterako harrobia badago. Orain, momentu honetan baino harrobi hobeagoa egongo da hemendik urte batzutura. Gero eta talde gehiago daude, jubenilak, kadeteak,

infantilak... Egitura gero eta hobeagoa dago taldeetan. Lehen talde bat egoten zen, Regional mailakoa eta neskek besterik gabe etortzen ziren jokatzerara, asko, lagun bat jokalaria zelako. Baina orain behe-behetik hasten dira, egitura onarekin, eskailera onarekin. Neskek etapak betetzen joaten dira, pixkanaka-pixkanaka, mutilak bezala. Horrek eskatzen du, entrenatzaileak ere tituludunak sartzeko. Neskek direla eta, ez du edozeinek balio. Entrenatzaileak bilatzea zaila da, baina, entrenatzaileak zerikusi

Bi adar ezberdin daude futboleant: nahiz eta biak futbola izan, nesken futboleant sailkatzen bazara, kosta egiten da mutiletara itzultzea. Alderantziz beharbada, errazagoa da.

handia du. Kontutan hartu behar da, urte osoa egon behar dutela jokalaria horiekin. Urte horretan, biilakaera bat izan behar dute. Ez da erraza urtebeterako konpromisoa hartuko duen entrenatzaile tituluduna bilatzea. Afizio eta bokazio handia eduki behar da horretarako.

Horrez gain, gurasoen inguruan lan egitea zaila dela esaten da.

Uf! Nik esaten dut gurasoak zenbat eta urrutirago, hobe. Gurasoak, bere semeak edo alabak jokatzea nahi du, gola sartzea, nahiz eta galdu... Guraso askok ez die galdetuko zer moduz joan den partidua, gustura ibili den... non jokatu duzu, zenbat gol sartu dituzu... galdetuko dio. Askotan, kritika konstruktiboa egin beharrean, destruktiboa egiten dute.

Nesken futbolearen hainbeste urte eman ondoren, ikusten al duzu zeure burua mutilak zuzentzen?

Zergatik ez. Momentuan ez duzu hori pentsatzen. Gauzak hain azkar joaten dira! Ni Añorgan hasi nintzenean ez nuen pentsatzen Realean arituko nintzenik. Orain ez dut pentsatzen hurrengo urtean non egongo naizen. Eguneroko lanak markatzen du. Denboraldi bukaeran ikusiko dugu zein lan egin dugun, non gauden, nola nagoen, gustura nagoen ni, eurak gustura dauden... Ez dut pentsatzen datorren urtean zer izango den, eguneko eguneko pentsatu behar da. Ahalik eta lanik onena, txukunena egin eta hortik aurrera, datorrena datorrela.

Bi adar ezberdin daude futbolean: nahiz eta biak futbola izan, nesken futbolearen sailkatzen bazara, kostatzen da mutilak itzultzea. Alderantziz beharbada, errazagoa da.

Realean bi adar horiek zer moduz uztartzen dira?

Zubietan beste bi adar daude nabarmen, lehenengo taldea eta Sanse beste mundu batean daude, elitean. Gainontzeko taldeon arteko harremana oso ona da, eraikin berean gaude eta egia esanda, teknikoen artean oso giro ona daukagu.

Real lehenengo mailara itzulita, lasaitasuna ere nabaritutako da ezta?

Nabaritzen da bai. Aurreko urteetan tentsio gehiago zegoen. Azkenean, lehenengo taldea igotzen bada, denoi eragiten digu. Kontseilua ere gehiago inplikatzeko da oinarriko futbolearen. Dena lotuta dago.

Asteburu honetan Lezaman jokatuko duzue Athletic-en aurka. Nolakoak izaten dira derbiak nesken futbolearen?

Oso politak izaten dira. Iaz Zubietan grada guztia bete zen, ia 1.000 pertsona izan ziren, Bilbotik ere jende asko etorri zen. Oilo ipurdia jartzen omen zitzaie jokalariei partidua hasterako. Gozamina izan zen. ETBk bi partiduak eman zituen. Partidu aurreko astea ere polita izaten da, komunikabideak arreta gehiago jartzen dute... Gainera jokalaria denak elkar ezagutzen dute, selekzio desberdinetan batera aritutakoak baitira. Harreman ona daukate.



Lazkao

Benito Lertxundi

'Lazkaon' merkatarien elkartearen aurkezpena izango da urriaren 15ean, gaueko 9,30etan, Azeria kulturgunean. 22:00etan, leku berean, Benito Lertxundiren kantaldia izango da, merkatarien elkarteak antolatuta. Sarrerak, udaletxean daude salgai, 20 eurotan.

Ordizia

Ordizia Kantuz:
Emon eta kantu afaria

Hitarok antolatzen duen Ordizia Kantuz egitarauaren barruan, urriaren 15ean eta urriaren 22an izango dira hurrengo bi saioak, Emon eta urteroko kantu afaria. Jarraian dituzue xehetasunak.

Urriak 15, ostirala:

22:00etan: Emon taldea, D'Elikatuzen. Bergaran sortutako taldeak musika estilo desberdinak nahasten ditu ska-reggae oinarri hartuta. Cumbi, rock eta funky-a...

Urriak 22, ostirala:

21:00etan: Kantu afaria eta Kuxkuxtu txaranga. Plaza Nagusian.

Goierri

Goierriko bizitza eta nekazaritza ekologikoaren III. hamabostaldia

Urriaren 16tik 31ra:

Erakusketa. Ekolurra, nekazaritza eta elikadura ekologikoaren aldizkariaren X. urteurrenaren ospakizuna. Erakusketa eta bideo-emanaldia. Ordiziako D'elikatuzen.

Urriak 16, larunbata:

10:00etan: Ogi biologikoa egiteko tailerra, Xabi Akizurekin.

Urriak 19, asteartea:

19:00etan: Hitzaldia: Haurren elikadura osasuntsua produktu ekologikoekin. Hizlaria: Sabrina Pato eta Aloña Gonzalez. Beasaingo Igartza jauregian.

Urriak 20, asteazkena:

19:00etan: Hitzaldia: Zer jana hala izan. Elikadura eta bizitza orekatua. Hizlaria: Jesus Larretxea. Zeraingo Kultur Etxean.

Urriak 21, osteguna:

19:00etan: Hitzaldia: Nola landu baratza ekologikoa. Hizlaria: Jesus Calvillo. Legorretako Udaletxeko Batzar aretoan.

Urriak 23, larunbata:

10:00etan: Olaberriko Bengoetxea, txakolin ekoizle ekologikora bisita.

Urriak 26, asteartea:

19:00etan: Hitzaldia: Zer da, zertarako, zergatik makrobiotika? Hizlaria: Egoitz Garro. Ordiziako Barrera Kultur etxean.

Urriak 27, asteazkena:

19:00etan: Hitzaldia: Gaixotasunaren 7 mailak eta bere traera elikaduraren bitartez. Hizlaria: Ana Revilla. Beasaingo Igartza jauregian.

Urriak 28, osteguna:

19:00etan: Hitzaldia: Arriskuak eta prebentzioa eremu elektromagnetikoan: mugikorak, wifiak, eta abar. Hizlaria: Asier Arregi. Zeraingo Kultur etxean.



NELSON BARBOSA
ERREFORMAK
Gremioen koordinazioa
tel.: 687 837 011 Unzuruzaga, 9 behea **SEGURA**

Ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia
www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA: Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, Moduloak
HIZKUNTZA ESKOLA: Ingelera eta frantsesa
UNIBERTSITATE MAILA: Goierriko Unibertsitatea (MU)
MEKANOGRAFIA eta INFORMATIKA
LAGUNTZA PEDAGOGIKOA: Irakurketa, kalkuloa, ikasketa teknikak

Joan Iturralde, 5 eta Urbialde, 7 - BEASAIN
943 160 120 - 685 722 403 - 675 006 462



Mendizabal, C.B.
ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)
659 644 221 (Xabi)
Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

Beasain

Haitiren aldeko olagarro festa

Haitiarrei elkartasuna adierazteko helburuarekin, Olagarro festa antolatu du Gobernu Kanpoko Herriak Elkarlanean erakundeak. Urriaren 14tik 17ra, era ezberdinetan prestatutako olagarroa jateko aukera izango da Loinazko San Martin plaza azpian. Ordutegia hauxe izango da: urriaren 14an, 19:00etatik 23:00etara; urriaren 15ean, 16an eta 17an, 12:00etatik 15:00etara eta 19:00etatik 23:00etara.

Olagarro festarekin batera, urriaren 16an, Beasain elkarlanean, Haitiarren aldeko elkartasun jaialdia ere antolatu dute. Ondorengo da prestatu duten egitaraua:

17:00etan: Eskulan tailerra eta jokoak.

18:00etan: Txarangaren irteera buruhandiek.

20:00etan: Aurtzaka eta Ostadar dantza taldeak.

21:00etan: Elkartasun afaria, Beasaingo elkarte gastronomikoen eskutik.

Ondoren: Kike Biguriren bakarriketak eta Aitor Sarriegi eta Iñaki Apalategi bertsolariak.

00:00etan: Kantu-jaiak, Aitor Furundarenarekin.

Goieniz zine kluba

Ez dira garairik onenak Goieniz zine klubarentzat, dirulaguntzak murriztu egin dizkietelako. Baina urritik abendura izaten den zikloari eutsi egin dio Goienizek. Hori bai, dirulaguntzen murrizketarekin, film kopurua murriztu behar izan dute. Lerro hauen bidez, Goierriko zine-zaleei dei egiten die Goienizek, urte hauetan guztietan bezalaxe, udazkeneko ostegunetan, zine-klubera gerturatzeko.

Ohi bezala, Beasaingo Usurbe Antzokian izango dira pelikulak, gaueko 21:00etan. Eguneko sarrerak, 4 euro balio du. Denboraldi osorako bonoa, 15 eurotan eros daiteke.

Urriak 7, osteguna: Film Kuttuna: 'Fuego'. Deepa Mehta.

Urriak 21, osteguna: 'Air Doll'. Hirokazu Kore-eda.

Azaroak 11, osteguna: 'A proposito de Elly'. Asghar Farhadi.

Azaroak 25, osteguna: 'Utopia'. Lucho Iglesias eta Alex Ruiz.

Abenduak 2, osteguna: 'Despedidas'. Yoijiró Takita.

Abenduak 16, osteguna: 'Soul Kitchen'. Fatih Akin.

Udazken kulturala hastear

Urriak 17, igandea:

09:00etan: XIX. Aire zabaleko Pintura-lehiaketa: mihiseak zigilatzea. Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan

09:00etan: Beasaingo XVIII. Argazki-rallya: izena emateko epe-irekitzea. Urbieta Arte Plastikoetako Zentroan.

10:00etan: Kulturen arteko eguna: Extremadurako azoka eta Goierriko Etorkinen Elkarteak ezagutzen: Mushu Pakari ekuadortarren elkarte, Al Bir marokoarren elkarte, eta El Fagr arabiarren elkarte. Gernika pasealekuko frontoian.

12:30ean: Mushu Pakari dantza taldearen emanaldia.

13:00etan: Gasteizko 'Virgen de Guadalupe' taldearen dantza emanaldia. Gernika pasealekuko frontoian.

13:30etan: XIX. Aire zabaleko Pintura-lehiaketa: Lanen aurkezpena. Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

14:00etan: XVIII. Argazki-rallya: Izena emateko eta lanak aurkezteko epe berria. Urbieta Arte Plastikoetako Zentroan.

18:00etan: Beasaingo XVIII. Argazki-rallya. Lanen aurkezpena. Urbieta Arte Plastikoetako Zentroan.

18:30ean: XIX. Aire zabaleko Pintura-lehiaketa: Sari-banaketak. Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan. Ondoren lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketaren inaugurazioa.

Urriak 19, asteartea:

19:00etan: Hitzaldia: Haurren elikadura osasuntsua produktu ekologikoekin: Ekolapiko proiektuaren aurkezpena Irriargi Elkartearen eskutik. Hizlariak: Sabrina Pato eta Aloña Gonzalez. Igartza jauregian.

Urriak 20, asteazkena:

17:30ean: Ipuin kontaketa: 'Zapata baten barruan aurkitutako ipuinak'. Kontalaria: Maite Franko. Berritsu ludotekan.

Urriak 21, osteguna:

21:00etan: Zine-kluba: 'Air Doll' filmaren proiektzioa. Usurbe Antzokian.

Urriak 22, ostirala:

18:30ean: Kale antzerkia: Kukubiltxo Antzerki taldearen, Txirrikiz antzezlanak. Kale Nagusian.

22:30ean: Bertso saioa: Sebastian Lizaso, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Miren Amuriza, Aitor Sarriegi eta Ainhoa Mujika. Usurbe antzokian. Sarrera: 6 euro.



GRAFICAS
EGUZKI
IN PRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN



Pottoka
KAFETEGIA

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitaratekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA ☎ 943 16 03 04

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak
Teorikoa 5 egunetan
CAP baimen profesionala

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

Segura

Euskal Herriko dantza txapelketa

Urriaren 10ean, arratsaldeko 6etan, hasiko da Segurako Euskal Herriko dantza txapelketa, Baratze pilotalekuan. 10 bikote lehiatuko dira. 8 bikote gipuzkoarrak dira eta 2 bizkaitarrak. Atsedenaldiran Korrontzi+Oinkari taldearen eskutik, 'Infernuko hauspoa' saioaz gozatzeko aukera izango da. Saioa Euskal Telebistak grabatuko du eta egun berean, gaueko 11ak alderako ikusteko aukera izango da.

Ormaiztegi

Arrastoak, urriaren 10ean

Jatorrizko Euskal Animalia Espezien XI. erakusketa antolatuta dute Euskal Herriko abere autoktonoen elkarteak eta Ormaiztegi Udalak. Urriaren 10ean izango da, 10:00etatik 14:30ak aldera. Erakusketa, txapelketa eta dastaketa ezberdinak izango dira.

Zehatzago esateko, Gipuzkoako VII. Pottoka txapelketa, ahuntzen eta sasi-ardien sariketa eta ikuskizuna, Betizu txapelketa eta Goierriko ezti lehiaketa.

Bestetik, hainbat produktu dastatzeko aukera ere izango da: ezti, euskal oiloaren salda, oilo haragia, eta betizu haragia.

Ohi bezala, haurrek asto-otarreetan paseatzeko aukera izango dute.

Zaldibia

Santa Fe jaiak

Urriak 8, ostirala: Mozorro gaua:

16:30ean: Guraso Batzordeak antolatuta, haurren txokolate-jana. Ondoren jolasak.

17:30ean: Zaldibiako pilota eskolako eta afizionatuen esku-pilota partidak. Lehenengo partidak Zaldibiako Pilota eskolako artekoak. Ondoren: Mutil jubenilak: Nazabal (Zaldibia) – Elustondo (Berrobi) / Oria (Zaldibia) – Lasa (Etxarri).

23:00etan: Dantzaldia 'Drindots' musika taldearekin. 01:30 aldera: Herritarren Play back saioan.

Urriak 9, larunbata:

12:30ean: Herriko txistularien kalejira.

16:30ean: Mozorro-festa eta haurren jaialdia. Takolo, Kuki eta Koxmo pailazoan saio laburrak.

17:30ean: Almitza Segar elkarrekin antolatuta, herri kiroletako probak.

20:00etan: Manifestazioa eta ekitaldia, Txosna Batzordeak antolaturik. Ondoren herri-afaria.

23:30ean: Dantzaldia 'Garraxi' musika taldearekin.

Urriak 10, igandea: Koadrilen eguna:

12:30ean: Iztueta dantza taldearen saioa herriko plazan.

14:30ean: Bazkaria herriko plazan.

Bazkalondoren: 'Jun Da Jo', txarangak girotuta, koadrilen arteko jokoak eta kalejira.

23:30ean: Dantzaldia 'Triki-zio' musika taldearekin.

Zerain

Kultur astea hasi da

Urriak 20, asteazkena:

19:00etan: Hitzaldia: 'Zer jan ala izan. Eikadura eta bizitza orekatua'. Hizlaria: Jesus Larretxea.

Urriak 22, ostirala:

19:00etan: Mahai ingurua, herriko bolariarekin. Ondoren bolatokian jolasteko aukera izango da.

<ul style="list-style-type: none"> ✗ Jabekideen komunitatea osatzea ✗ Komunitateen kontabilitatea ✗ Akten idazketa ✗ Aurrekontuen eskaera ✗ Aholkularitza legala ✗ e.a. 	 <p>AUZOKI Komunitateen administrazioa Kol. Zenb. 599</p> <p>Urdaneta 52-behea ORDIZIA Tel.: 943 087 486</p>
---	--

<p>Tel 943 88 44 00 Faxa 943 80 51 27 www.biokzerbitzuak.com Ordizia Urdaneta, 7</p>	 <p>biok z e r b i t z u a k</p>	<p>kudeaketa fiskala kontablea merkatala laborala</p>
--	---	--


<p>ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK</p>
<p>J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA</p>

Unea iritsi da!

Euskal Herria eta Eskozia bat-eginik, autodeterminazio eskubidea aldarrikatuz

Nazioen Mundua, Autodeterminazio Eskubidearen aldeko herri ekimenak, jaialdi "historiko eta mundiala" antolatatu du urriaren 16rako. "Historikoa eta mundiala dela diogu, herri ekimenetik sortu delako, Nazioen Munduak azken urteotan egin duen lanaren ondorio delako. Historikoa da ere, herritarrok hartuko dugulako iniziatiba. Orain arte politikari eta beste eragiletan utzita genuen gure etorkizuna kudeatzeko ahalmena, baina orain gure esku-tan dugu eta gure ardura da gure etorkizuna erabakitzea".

Ordizia izango da bi herrien eta eskubide bakar baten topaleku. "Urriaren 16an Europako bi nazio zaharren topaketa antolatu dugu: Euskal Herria eta Eskozia. Hiru urte daramatza ekimenak harremanak lantzen Eskoziarekin, baina batez ere hango eskualde batekin, Highlands-ekin. Izenari erreparatzen badiogu, Goierri esan nahi du Highlands-ek. Horretaz ohartuta, bi eskualdeen arteko uztarketa egin nahi da".

Bi eskualdeen arteko antzekotasunak asko dira. "Aurkitu dugu, ordea, bi nazioak elkartzeko beste puntu bat: autodeterminazio eskubidearena. Eskozian erreferenduma egingo dute, herriari hitza eman behar diote euren herriaren etorkizunarekin zer egin nahi duten libreaki adierazteko. Eskozian inork gutxi zalantzan jartzen ez duen printzipio demokratikoa da autodeterminazioa; horrela erakutsi diote behintzat Ekimenari Edinburgh-eko parlamentuan egon ginean; alderdi batekoek zein beste-koek ez zuten zalantzan jar-



Urriaren 2an, Beasaingo Igartzan, Goierriko eragile ezberdinek jaialdiaren aurkezpena egin zuten. Argazkian, ezkerretik eskuinera: iñaki Azurmendi (aizkolaria), Karmele Aierbe (ezker abertzalea), Eider Alustiza (Nazioen Mundua), Patxi Plazaola (Beasaingo alkatea, EAJ), Belen Maiza (Ordiziako zinegotzia, EA)

tzen eskubide hori, oinarrizkotzat jotzen dutelako. Azpimarratu dezagun beraz, oinarrizko eskubide demokratiko unibertsala baita, Nazio Batuen Erakundeak jasota duenez. Beraz, eskoziarrek oinarritzat duten eskubide hori, guk hemen, euskal herritarrok zergatik ez? Horixe da bi nazioen arteko topaketa honen bitartez gizarteratu nahi duguna: euskal herritarrok ere erabakitzeko eskubide osoa daukagula".

Jaialdi historikoa

Eskoziatik kanpo Europan egin den jaialdi handiena ikusteko aukera izango dugu Goierriin. "Eskoziatik 70 laguneko ordezkari-tza dator: poli-

Idiazabaldik Goierriera eta Euskal Herrira

Nazioen Mundua Idiazabalen sortu zen. Idiazabaldik Goierriera zabaldu zen eta orain beste urrats bat ematera dator: Euskal Herrira zabalduko da bere mezua. "Herri ekimenak Goierriin arrakasta izan badu, pentsaera ezberdineta-ko herritarrok elkartu eta auzolanari ekin diogulako izan da. Autodeterminazioa da batzen gaituena eta horri bakarrik, ez besterik; gaiari heldu, elkartu eta landu dugulako indartu da Ekimena herriz herri. Goierriin posible izan da, begira zein herri ezberdin dauden bertan, zein iritzi ezberdinak herritar-ron artean, baina horretan, erabakitze eskubidean ados gaude eta elkarrekin auzoz auzo lan egitea erabaki dugu".

Beraz, Ordizian antolatutako jaialdia, "ez da goierriar-ontzako bakarrik antolatatu. Euskal herritar guztiei, gazpi probin-ziatiko herritarrei eskaini nahi diegu jaialdi hau, azken fine- an, Euskal Herriak ahalik eta etekinik handiena atera die-zaion hemen sortu den herri mugimendu honi".

tikariak, musikariak, herri kirolariak, pailazoak, gaeliko-arekin lan egiten dutenak... ordezkaritza ezin aberatsagoa dator eta urriaren 16an euren folkloreak, kulturaz eta musikaz blai egiteko aukera izango dugu Ordizian, Trevijano errugbi zelaian. Eskoziako BBC Alba telebista ere gure artean izango da jaialdia jaso asmoz”.

Egun bete Trevijanon

Egun osoko jaialdia izango da urriaren 16koa. 2 karpa jarriko dira, otorduak bertan egiteko aukera egongo da... Herri kirolak estalperik gabe izango dira. Gainerako ekitaldiak estalpean izango dira. Bi karpa egokituko dira ekitaldi guztietarako. “Egun pasa polita antolatu dugu. Erabakitze eskubidea ere bertan presente egongo da uneoro, baina batez ere, arratsaldeko 6,30etan hasiko den

ekitaldi nazionalen. Euskal Herri mailako jaialdia izango da, aprobetxatu dezagun, batu gaitezen, eman diezaiogun hasiera Euskal Herri mailako auzolanari, elkartu gaitezzen herritarrok”, diote Nazio Mundukoek.

Sarrerak

Trevijanoko gunean sartzeko, sarrera ordaindu beharko da. Egun osorako sarreraren prezioa 20 euro izango da helduentzat. Sarrera honekin jaialdian izango diren ekitaldi guztiak ikusi ahalko dira (herri kirolak, pailazoak, kantautoreak, ekitaldi nazionala, kontzertuak). Umeen kasuan, 8 eurokoa izango da sarrera.

Sarrerak www.uneairitsida.net helbidean daude salgai. Goierriko toki ezberdinetan ere eros daitezke. Datozen egunetan, web-gune horretan bertan azalduko informazio zehatza.

‘Unea iritsi da’ jaialdia, Ordizian urriaren 16an

10:30ean: Irekiera.

11:00etan: Eskoziatik kanpo Europan egin den eskoziar kultur erakustaldirik handiena: Highlands games. Euskal Herriko eta Eskoziako herri kirolak.

14:00etan: ‘On egin’ karpan: bazkaria. Ondoren, Arrabots eta Eskoziako The Caledonian Canal Ceilidh Trail Band.

16:00etan: Karpa erraldoian: Pirritx, Porrotx eta Marimotots eta Big Rory eta Ochie the dog Eskoziako pailazoak.

18:30ean: Karpa erraldoian: Ekitaldi nazionala. Autodeterminazioa gauzatzeko unea.

21:00etan: Karpa erraldoian, kontzertuak: Berri Txarrak, Red Hot Chili Pipers, Gose, Trikizio, Oreka TC eta Euskal Herriko eta Eskoziako DJak.



Berehala gimnasia hiporesibo ikastaro trinkoa



ardiPithecus
estudio pilates beasain

Urbialde, 1 solairuartera (La Caixa gainean) - BEASAIN - T. 943 886 958




Ezkioko Santa Lutzi auzoko eskolaumeak 1932. urtean

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Antonia Bereziartu (Bazterretxe), Miren Bereziartu (Bazterretxe) (aurrerago dagoena), Pakita Bereziartu (Anduagaundi), Joxepa Arizti (Ugalde), Felipa Aranburu (Zelaeta), Katalina Bereziartu (Bazterretxe), Felisa Oiarzabal (Agerrebengoa), Juanita Zumarraga (Sagastizabal), Asentxi Etxeberria (Agerrebengoa), Nati Oiarbide (Kapategi) eta Joakina Elizegi (Endaiene).


Hirugarren ilaran: Gregorio Loiarte (Ojarbide), Joxe Mari Iturbe (Txoritegi), Txomin Oiarzabal (Agerrebengoa), Angel Oiarbide (Kapategi), Joxe Iturbe (Txoritegi), Martin Loiarte (Ojarbide), Bernardo Oiarzabal (Ojarte), Asuncion (maistra, Zaragozako), Andres Bereziartu (Bazterretxe), Joxe Mari Etxeberria (Txipi), Joxe Migel (Ojarbide), Dolores Zumarraga (Sagastizabal) eta Joxe Mendia (Agerreaundi).

Hirugarren ilaran: Prontxio Etxeberria (Txipi), Maria Akizu (Akizu), Mari Karmen Azpiazu (Miranda), Joxe Azpiazu (Miranda), Agustin Iturbe (Txoritegi), Markos Oiarbide (Kapategi), Karmen Oiarbide (Kapategi), Julian Elizegi (Endaiena), Milagros Elizegi (Endaiene), Joxe Mari Arratibel (Zozaberroaundi) eta Primitiba Aranburu (Zelaeta).

Behoko ilaran: Prantxiska Larrañaga (Ugarte, Gabiria), Jabier Arratibel (Urkiola, Gabiria), Pilar Oiarzabal (Agerrebengoa), Begoña Bereziartu (Bazterretxe), Antonia Loiarte (Ojarbide), Txomin Mendia (Agerreaundi), Joxe Mari Zumarraga (Sagastizabal) eta Larrañaga (Ugarte, Gabiria).



SILVIAMIRASCASASAYAS
ODONTOLOGOIA
KOL. Zko: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)




A SEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MEREKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA



Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g



MUJIKA 19

MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

ARRASTOAK

Jatorrizko Euskal Animalia espezien XI. erakusketa

Txapelketak eta aurkezpenak:

- Gipuzkoako VI. Pottoka txapelketa
- Betizuen txapelketa
- Pirenaika aurkezpena
- Enkarterrietako astoaren aurkezpena
- Ahuntz eta sasi ardien sariketa
- Eskualdeko XIII. Ezti lehiaketa
- Latxa ardien aurkezpena
- Euskal txerriaren aurkezpena

Urriak 10 igandea
Goizeko 10etatik aurrea

Goizean zehar:

- Produktuak salgai
- Talogileak eta artisauak
- Trikitilariak
- Betizu pintxoak
- Pottoken gainean ibiltzeko aukera
- Astoei jarritako otarretan paseatzeko aukera



ORMAIZTEGIKO UDALA



SEGURA 2010

Urriak 10

18:00etan

BARATZE pilotalekuan

Atsedenaldirian :

KORRONTZI + OINKARIREN

"INFERNUKO HAUSPOA"

SAIOA IKUSGAI

Antolatzaile



SEGURAKO UDALA

Laguntzaileak



EUSKAL DANTZARIEN
BILTZARRA



34.
EUSKAL
HERRIKO
dantza
txapelketa

Atari Atari Atari
Atari Atari Atari
Atari Atari Atari
Atari Atari Atari
Atari A
Atari A
Atari A
Atari A
Atari A
Atari A
Atari A
Atari A
Atari A
Atari A
Atari A
Atari A
Atari A
Atari A
ATARI A
Atari A



ataridiseinua @ euskalnet.net
w.w.w. Dekoatari.com

Atari Atari Atari
Atari Atari Atari
Atari Atari Atari
Atari Atari Atari
Atari Atari Atari
Atari Atari Atari
Atari Atari Atari
Atari Atari Atari
Atari Atari Atari
Atari Atari Atari
Atari Atari Atari
Atari Atari Atari
Atari Atari Atari

Barne diseinua-diseño de interiores
Proiektuak-altzariak-proyectos
Zerbitzu integrala-Decoracion integral



Elosegi 20, 20210 Lazkao tlf-943088207

Atari
Atari
Atari
Atari
Atari
Atari